

Ekintzailtza, Berrikuntza eta Elkarkidetza Ikastaro Aurreratua Txilen

2009/01/29

2008 urtean, Mondragon Unibertsitateak, Fundación Minera Los Pelambres (Txile) eta Choapa Emprnde (Txile) erakundeek sinatutako elkarlanerako akordioaren ondorioz, non helburua, ekintzailtza, berrikuntza eta elkarkidetza gaitasunak garatzea ziren Choapako probintziarako, Ekintzailtza, Berrikuntza eta Elkarkidetza Ikastaro Aurreratua jarri da martxan.


Ekintza honen helburuak ondokoak dira:

- Choapako probintziako enpresa mikro eta txikien artean ekintzailtza eta berrikuntza kulturaren sustapenean eragin.
- Choapako mikro eta enpresari txikien artean elkarkidetzarako dagoen joera indartu.
- Ekintzailtza eta berrikuntzaren arloa Choapako probintziako Lizeo Tekniko Profesionaletan barneratu.
- Kudeaketa publikoaren praktikak hobetu ekoizpenaren arloan.

Ekintza hau, bi talde bereizturi zuzendua dago:

- Choapako probintziako mikro eta enpresari txikiak.
- Lizeo tekniko-profesionaletako irakasleak, herri mailako funtzio publikoan ari direnak eta Fundación Minera Los Pelambreseko profesionalak.

Irakaskuntza programak, 7 hilabeteko iraupena izango du Chilen eta ondoren, talde guztiko 20 pertsona aukeratuko dira, hiru astetako egonaldia Euskal Herrian egin dezaten.



GOBIERNO DE CHILE
Chile Emprnde